

bat, bertako semea ezpadaere. *Ugarte-ko Jerman jauna* da ori, jakintsuba, baitaere jende-arteko fedearen zaintzalle edo dotriñen konduartzallea Kalaorra-ko erriyan. Bere eginkizuneko lanak betetzen ari zala puzoyez il zuten gaiztoak, eta lur-eman ziyoten Lezo-n martiri santu baten ustean.

Ikasi dezagun bakoitzaren bizierari dagozkiyon lanak ondo egiten, zerbait nekatuta ere, eta Jainkoak saristatuko gaitu.

BLAS PRADERE.

*(Aurrandetuko da)*

## NEURE MAITE JUANARI

¡Zeinbat neure biyotza  
padezitzen dago  
itz bat egin ez gaitik  
nik zuri lenago!  
Bada zu ikusi ezkerro  
beti penaz nago,  
ta ezin sufritu neike  
nik pena geyago.  
Juana gaur orregaitik  
nator ni zugana,  
oso galdu baño len  
neure biyotz dana,  
amorez eta penaz  
beterik daguana.  
Ziñeztu egizu bada  
neure maite Juana.  
Zortzi illabete dira

esaten nebala  
nere biyotz osua  
zuretzako zala  
¿Maite nozu Juanachu  
biyotzetik?...

¿Ala,  
guradozu entzun Boni  
zu gaitik illdala?  
Zuk maite izan ezkerro  
eloskit ardura,  
gaur ill eta juateko  
lurraren barrura.  
Baña ez....

Maite banozu,  
ez dot nik illgura.  
Guradot, zeugaz bizi,  
ill, ta igo zerura.

BONIFAZIO LACHA ETA AGIRRE.